

Umeen ikaskuntzan ikastetxeko kanpo espazioek duten garrantziaz hausnartzeko, jardunaldia ekainaren 25ean

2014/06/23

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hazitegi ikerketa taldeak egun erdiko jardunaldia antolatu du hurrengo ekainaren 25erako. Jardunaldiaren xedea da hausnartzea ikastetxeetako kanpo espazioetaz eta horiek duten garrantziaz umearen ikaskuntza prozesuan. Gainera, ekitaldia baliatuko da jendaurrean aurkezteko ikerlari talde horrek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, zortzi ikastetxetan egin duten hausnarketa prozesua eta azaltzeko ikastetxe horietarako proposatutako hobekuntzak.

Jardunaldia egingo da Eskoriatzako campusean, eta interesatuek alde zuzenean eman beharko dute izena plaza mugatuak daudelako. Izena emateko deitu behar da 943 71 41 57 (5133 luzapena) telefonora edo mezua idazi hurrengo posta helbidera: amartinezdelagos@mondragon.edu



Kanpo espazioa izan daiteke ikaskuntzarako oso gune egokia.

Egitaraua

09:30-10:00 Aurkezpena. Hitzaldia: Ikastetxeko Kanpo Espazioa Haurren Ikaskuntzarako Ingurune.

10:00-10:15 2013-14 Ikasturtea: Ikastetxeetako Kanpo Espazioak Biziberritzeko Proiektua.

10:15-11:15 Ikastetxeetako esperientziak I:

- Salvatore Mitxelena Ikastola.
- Elkar Hezi Ikastetxea.
- Mendaro Ikastola.
- Txantxiku Ikastola.

11:15-11:45 Atsedena.

11:45-12:45 Ikastetxeetako esperientziak II:

- Kurtzebarri Eskola.
- Zestoa Herri Ikastetxea.
- Elgoibar Ikastola.
- Mariaren Lagundia Ikastola

12:45-13:15 Mahai-ingurua.

13:15-13:30 Etorrizunerako erronkak eta itxiera.